

## Ozeanoetako nanoplastikoak ordu gutxian metatzen dira bizidun urtarren organoetan

Ozeano kutsatuetako baldintzak imitatuta, nanoplastikoak organismo urtarretan zer abiadura metatzen diren aztertu dute Plymouth-eko Unibertsitatean. Bieirak erabili dituzte proba egiteko, eta emaitzek erakutsi dute ordu gutxi batzuk nahikoa direla nanopoliestirenoa xurgatu eta bizidunen organo nagusi gehienetan zabaltzeko.

250 nm-ko partikulak hesteetan metatuta zituzten bieirek, ur kutsatuetan jarri eta handik sei ordura; 25 nm-koak, baita giltzurrunetan, giharretan, zakatzetan eta bestelako organoetan ere.

Gainera, sei ordu igarotakoan bieirak ur garbitara pasata ere, nanopoliestirenoak hor jarraitzen du luzaroan. 25 nm-ko partikulak 14 egunez mantendu dira, eta 250 nm-koak, berriz, 48 egunez.



Sei ordu nahikoa dituzte bieirek nanoplastikoak xurgatu eta organo nagusietan metatzeko. ARG.: Wikimedia Commons.

Ikertzaileen esanetan, nanokutsatzaileok bizidunen ehunetan nola zabaltzen diren ikusteak lagundu dezake ulertzen zer ondorio izan ditzaketen gerora organismoan. Sei orduko kutsadura puntual baten eragina aztertu dute, baina epe luzeko kutsadurak zer nolako ondorioak izan ditzakeen begiratzea falta da orain. [Environmental Science and Technology](#) aldizkarian argitaratu dute lana. ●



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

Ikertzaile euskaldunen kongresua.  
Oraindik ez duzu artikulua bidali? Otsailaren 22a da azken eguna.

BAIONA, UPPA-ERROBIKO CAMPUSA - MAIATZAREN 27, 28 ETA 29AN  
[www.ueu.eus/ikergazte](http://www.ueu.eus/ikergazte)